

2018KO MAIATZAKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. bi ordu gehitu ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

- Hilaren 4an, 23:00an, Delta Cephei izar aldakorren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 10an, 15an, 21an, 26an eta 31an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 7an, 14:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 14an, 21an eta 29an izango dira beste maximoak.

- Prismatikoekin edo teleskopioarekin:

-hilaren 16tik 17ra doan gauean, gutxienez 100mm dituen teleskopio batekin, lo-ren itzala ikus daiteke Jupiterren azalera zeharkatzen.

-Hilaren 26an, 21:00tan Jupiterren sateliteak ikusi al izango dira berezko ordenean: Io, Europa, Ganimedes, eta Calisto, planetaren ekialdean

ILARGIA MAIATZAN (Lurrarekiko orbita-abiadura 1km/s = 3.600km/ordu)

02 10:40tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izararekin, 8,9^ora.

04 20:02tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 1,7^ora.

06 00:35tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.457 km (aurreko perigeoan baino 35.743 km gehiago).

06 06:20tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 2,7^ora.

07 10:23tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

08 02:09tan, Ilbehera.

15 11:48tan, Ilberria.

17 18:18tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 4,8^ora.

17 21:05tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 363.776 km (aurreko apogeoan baino 40.681 km gutxiago).

19 12:19tan, konjuntzio geozentrikoan Geminisko Pollux izararekin, 8^ora.

20 13:13tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

22 02:11tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izararekin, 1,4^ora.

22 03:49tan, Ilgora.

25 Librazio maximoa longitudean ($l=5,5^{\circ}$). Tycho, Copernico, Kepler eta Aristarco kraterrak ikus daitezke, baita ere haietatik erradio moduan luzatzen diren lerro argiak, Sortu zituen meteoritoaren talkak jaurtitako materiaren hondarrak.

26 02:43tan, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izararekin, 7^ora.

27 librazio minimoa latitudean ($l= -6,6^{\circ}$). Austral itxasoa ikus daiteke.

27 19:48tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 3,8^ora.

29 14:20tan, Marrubien Ilbetea. Zeruertz garbi batean, ilargia ekialdetik ateratzen ikus dezakegu, eguzkia mendebaldean ezkututzen ari den momentu berean

29 17:57tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izararekin, 8,9^ora.

PLANETAK MAIATZAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)**Merkurio (Hilabete honetan ikusteko aukerarik gabe) orbita-abiadura 172.440 Km/h**

Ekliptikaren inklinazioa dela eta, ez da zeruertzetik altxako. Hilaren 1an Igoera zuzena 0h 55m eta deklinazioa 3^o izango da, hilaren 31an igoera zuzena 4h 00m eta deklinazioa 20^o izango dira.

Artizarra (arratsalde amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Eguzkia sartu eta bi ordu t'erdi beranduago ezkutatu da hilabete guztian zehar. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 4h 23m eta deklinazioa 22^o izango da, eta hilaren 31an igoera zuzena 7h 00m eta deklinazioa 25^o. Hilabetea Tauron hasi eta Geminisera pasako da.

Marte (Gauaren bigarren erdialdian baino gutxiago ikusiko dugu) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Ekialdeko zeruertzetik azalduko da eguzkia baino lau ordu eta 20 minutu lehenago hilaren hasieran, eta 5 ordu eta 15 minutu lehenago hilaren amaieran. Batzbeste 1,1 milloi km eguneko gerturatzen jarraitzen dugu. Uztailaren 27an, oposizioan, 57 milloi Km-tara aurkituko gara. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 19h 42m eta deklinazioa -23° izango da, eta hilaren 31an igoera zuzena 20h 33m eta deklinazioa -22° . Hilabetea Sagitarion hasi eta Capricorniora pasako da.

Jupiter (Gauaren osoan zehar ikusiko dugu) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Oposizioan hilaren 9an, ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik aterako da eguzkia jartzen bitartean, eta mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzetik ezkutatu da 10 ordu beranduago. Bere distira haundiak, $-2,5$ magnitudekoa, aurkitzeko erraz bihurtuko du. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 15h 09m eta deklinazioa -16° izango da, eta hilaren 31an igoera zuzena 14h 54m eta deklinazioa -15° . Hilabete guztia Libran emango du.

Hilaren 10an, Lurra eta Jupiterren arteko distantzia 658 milloi kilometrokoa izango da, aurtengo motzena Sateliteen mogimendua behatu daiteke prisma edo teleskopioarekin.

Hilaren 14an, Calisto satelitea aurki dezakegu planetaren ipar poloaren gainean.

Hilaren 16tik 17ra doan gauean, batekin, lo-ren itzala ikus daiteke Jupiter zeharkatzen.

Saturno (gauaren bigarren erdialdean ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Eguzkia sartu eta lau ordu t'erdia zalduko da hilaren 1an, eta bi ordu beranduago 30an. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 18h 39m eta deklinazioa -22° izango da, eta hilaren 31an igoera zuzena 18h 34m eta deklinazioa -22° . Sagitarioren izarren artean aurkituko dugu.

Hilaren 06an 01:25an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 13an 22:52an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 21an 23:16an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 29an 20:35an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (hilabete honetan ezin izango dugu ikusi) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Ekliptikaren inklinazioa dela eta, ez da behatzeko aukerarik izango.

Neptuno (hilabete honetan ezin izango dugu ikusi) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Ekliptikaren inklinazioa dela eta, ez da zeruertzetik altxako.

MAIATZEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, asteartea, eguerdian, 2.458.210 egun juliotarra hasiko da.

- Egunak 14 ordu eta 08 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 15 ordu eta 10 minutuko hilaren 31an.

- Hilaren 6an, lurak 76 urte periodo duen Halley kometaren igarotzeak utzitako hauts kosmiko lorratza zeharkatuko du lehen aldiz aurtan (bigarrena urrian izango da, Orionidak), Eta Acuaridaz izeneko izar iheskorak sortuaz.

Hilaren 9an, lurak C/1983 H1 IRAS-Araki-Alcock kometak utzitako hauts lorratza zeharkatuko du, Eta Liridas izeneko izar iheskorak sortuaz.

- Hilaren 14an, 12:27tan, eguzkia itxuraz Tauro konstelazioan sartuko da ($53,66^{\circ}$).

- Hilaren 15an, denboraren ekuazioak aurtengo bere lehen maximo negatibora iritsiko da: -3m 41s.

- Hilaren 16an, Hegiraren 1439. Urteko Ramadam hilabetearen hasiera teorikoki. Data ofiziala musulmandar botere erlijiosoen aukeran dago.

- Hilaren 21an, astrologiaren arabera, eguzkia Geminis konstelazioan sartuko da (60°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.